

“ZUBELTZU”

V. Bertso Paper Sariketa



DEBA-ITZIAR
2014

AURKIBIDEA

• SARRERA	7
• LEHEN HEZKUNTZA:	
4. MAILA	
Izurdea (June Sudupe)	10
5A GELA	
Aran (Jone Aranceta)	11
A.SD.DD.P (Andoni Orio)	11
Bale JR (Imanol Icíar)	12
Barbie II (Ibai Icíar)	12
Barbie III (Jon Gandiaga)	13
Chupa chups (Izaro Mendizabal)	13
Gomi gominola (Elene Molina)	14
Gore (Goretti Unanue) 3. SARIA	15
Happi dent (Maidor Gorosabel)	16
Irujo (Eñaut Viñaras)	16
Kukurutxo (Elene Aizpurua)	17
Lazarillo (Steven Campos)	18
Lolipop (June Rodríguez)	18
May Antony (Kerman Rico)	19
Michael Jackson (Unai Durán)	19
Minni (Kihana Piriz)	20
Platanoa (Nahia Urkaregi)	20
Sandia (Mireia Lili)	21
Sara (Enaitz Goikoetxea)	22
Tarina (Xabier Beasain)	22
5B GELA	
Agiro (Aitor Aizpurua)	23
Athletic (Unai Goikoetxea)	23
Charlie4 (Iñigo Etxeberria)	24
Gartzi (Javier García)	24
Kuk (Ager Aizpurua)	24
Lapari (Maria Faces)	25
Lomce (Galder Gorroño)	25
Loredeba (Lorena Ladera)	26
Mandarin (Paul Larrañaga)	26
Maria Teresa (Itsasne Osa)	27
Ojmar (Unax Urteaga)	27
Omiamia (Omaima El Amrani)	28
Oparia (Judit Amilibia)	28

Pablo (Kaiet Altzibar)	28
Petronor (Danel Bereikua)	29
Sakoneta (Eider Itsaso)	29
Tariña (Naroa Etxeberria)	30
Txerria (Kimetz Etxabe)	30
Txiki (Itziar Egaña)	31
Txispa (Aimar Arrieta)	31

5C GELA

Ali (Alaitz Albizu)	32
Aupa Aimaka Bat (Unai Etxabe)	32
Aupa Itziartarrak (Xabier Iribar)	33
Davitza Pizza (David Alonso)	34
Ioni (Ion Bikandi)	60
Izetitxu (Elene Izeta)	34
Lorea (Lorena Sobrado)	35
Maita (Maitane Pastor)	36
Makarroni (Maria Mendoza)	36
Mancititxu (Ibone Mancisidor)	37
Mantarraina	37
Marti (Unai Martiartu)	38
Mira (Mirari Redondo)	38
Nobi (Ibon Ibarluzea)	39
Oru (Aimar Oruesagasti)	39
Pirulo Jungle (Jokin Narbaiza)	40
Pringels (Jon Ajuriagoikoa)	40
Saalegii2 (Paula Del Olmo)	40
Singlu (Aner Asensio)	41
Tutankamon (Iñigo Osa)	42

6A GELA

Aizgorri (Unax Alvarez)	43
Anboto (Tsehainesh Egaña)	43
Andutz (Paula de Maria)	44
Arriola (Maidier Almortza)	44
Euskitze (Ibai Ponce)	44
Fregona (Arantxa Odriozola)	45
Gamba (Naroa Laka)	46
Gora luzaro (Nerea Garrido)	46
Itari (Iratí Arrazua)	47
Katu Hegalaria (Iosu Valenciano)	47
Katxetadaaaaaa (Josu Salegi)	48
La Voz (Jon Garrido)	48

Messi (Kevin Loreto)	49
Munduko Bakarra (Olatz Matias)	49
Nikolasmini (Ibai Etxano)	49
Papera (Maialen Gonzalez)	50
Pou (Enara Mendoza)	50
Rotuladorea (Haritz Aperribay)	51
Salbatore (Aloña Salegi) 1. SARIA	51
Vans (Endika Ruiz)	53

6B GELA

Aapol (Jone Gomez)	54
Agurefish (Julen Perez de Albeniz)	54
Amitxi (Amaia Isasti)	55
Arenita (Janire Lopetegi)	56
Bitxibola (Pablo Ron)	56
Bitxito (Ane Txurruka) 2. SARIA	57
Borborito (Ibai Bernal)	58
Elgoruro (Elene Gomez)	58
Inurri (Maite Ramos)	59
Maped (Uxue Egaña)	60
Mariatxi (Maria Pérez)	60
Milka (Jon Leiro)	61
Mini Mouse (Irati Martin)	62
Misaki (Isoken Ebowe)	63
Moskito (Nerea Sanz)	63
Robin Food (Urko Azkoitia)	64
The Willyrex (Markel Lizaso)	65

6C GELA

Alias (Asier Feijoo)	66
Anonimus (Xabi Larrañaga)	66
Berritsu (Miren Chivite)	67
Dantzari (Samantha Cardoso)	67
Don Anonimo (Jon Txurruka)	68
Don Perfekto (Xabier Uranga)	68
Drakula (Peru Santxo)	69
Lapari (Maidor Corrius)	70
Mae (Rebeca Arroyo)	70
Neska (Irene Ruiz)	70
Pitufina (Eider Perez)	71
Puamora (Elaia Oiartzabal)	71
Romanticus (Bitor Garitaonandia)	72
Tariña-2 (Intza Sudupe)	72
Zipi (Malen Arakistain)	72

• D.B.H.:

Andereño (Alba López)	74
Argal (Josu Arroyo)	75
Euskaldun petoak (Julen Arufe) 3. SARIA	76
Felipa (Nora Iriondo)	77
Ieup (Ekaitz Zubimendi) 2. SARIA	78
Ixil (Roke Etxeberria)	79
Joxepa (Paula Iglesias)	80
Luze (Andoni Ibarguen)	81
Pantxike (Teresa Aceña)	82
Ronalda (Ane Amutxastegi)	83
Rubio (Hodei Monasterio)	84
Tokero (Mikel Albizu)	85
Ura (Aitor Arakistain) 1. SARIA	86
Zurbil (Alejandro Delgado)	88

• NAGUSIAK:

Bertsolari (Antton Aizpurua)	90
Gorri (Zigor Agirre)	92
Itziarren semea (Igor Larrañaga)	94
Ketxus (Jesu Mari Amasorrain)	96
Lastur (Karlos Larrañaga) 2. SARIA	98
Musika (Josune Arakistain)	101
Pop begi urdin (Ander Zulaika) 1. SARIA	103
Sasi bertsolaria (Antton Aizpurua)	105
Zazpi (Irati Baroja)	107
Zelaitxo (Luis Mari Agirrezabala) 3. SARIA	109





V.a ere bete du, jada, bertso-paper sariketak. Zubeltzuren omenez sortutako ekimenak indartsu darrai, urtez urte jasotzen ditugun bertso kopuruari begiratzuz gero.

Inoiz baino lan gehiago jaso ditugu gaztetxoenen artean, ehundik gora hain zuen. Ez da harritzekoa bestalde, eskolak ahalegina egiten baitu, bertan lantzen duten ahozkoitasun programaren jarraipen gisa, neska-mutilek lehiaketa honetan parte har dezaten.

Ez dugu, ordea, LHtik DBHrako bidean, horrenbesteko jarraipenik erdietsi; adintarte honetan ere eskolatik sustapen lana egiten den arren, neska-mutilek eskolaz kanpo landu behar izaten dituzte bertsoak, askotan (etxean bertan edo inguruan bertsozalerik ez bada), laguntza handiegirik gabe.

Zentzu horretan gogora ekarri nahi dugu, iaztik, martxan dugula bertso eskola Deban eta zaletasuna duenak aukera paregabea izan dezakeela bere bertsoak landu eta ontzen joateko. Dozena bat lagun ari dira, aurten, jo eta ke, ostiralero biltzen, giro ezin hobegoan. Baten batzuk ausartu ere ausartu dira, Deban eta Itziarren izan diren zenbait bertso-txikiteotan, bapatekoan ere.

Luzaro ikastetxean hasitako lanak, bertso eskolan jarraipena izatea eta katea ez etetea ditugu, beraz, helburu. Gazteekin batera nagusien kategorian parte hartu duten herritarrekin zein zaletuekin, bertsoaren eta euskararen inguruan giro bat, jarrera bat, zaletasun bat umotu dadin.

Bitartean, gozatu bertso-paper hauekin.

**Debako Udaleko Euskara Batzordea
eta ZUHATZA Euskara Elkartea**







LEHEN HEZKUNTZA


4. MAILA

IZURDEA

Aman urtebetetzeak datoz
eta ez dakit zer egin
opari bat eroatera noa
bi txanpon handi hauekin
bere gustoko oparirikan
ez dut ekarri nirekin
konformatu egin beharko da
nire maitasunarekin

Doinua: Arratsalde on lehendabizitik

Egilea: June Sudupe



5. MAILA

(5A gela)

ARAN

Nire txakurtxo da
etxeke onena
guztien artean da
Bobby politena
horregatik beretzat
ohe bereziena
nik izatea nahi dut
zoriontsuena.

la - ia prest daukat
bere oparia
ohe bat erosi dut
benetan handia
oso eroso da
zuri eta gorria
asko gustatu zaio
nere oparia.

Doinua: Errota zahar maitea

Egilea: Jone Aranceta

A.SD.DD.P

Opari bat egin dut
nere anaiari.

Ere oparituko diot
nire izebari.

Oparia ireki
eta gustuko dut.

Eta eman dit bere
oparia niri.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Andoni Orio



BALE JR.

Eguna iritsi da
hori ospatzeko
lore sorta bat eta
dirua eskeintzeko
lotsaturik nagola
zuri emateko
lagunak beti ondoan
neri laguntzeko.

Doinua: Txakolina

Egilea: Imanol Iciar

BARBIE II

Niri eman didate
kriston oparia
ireki oparia
ta apurtu orria.

Oparia ireki det
da oso handia
tabla de surf polita
da oso handia.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Ibai Iciar



BARBIE III

Oparia prestatzen
ari naiz amari
uste dut gustatuko
zaiola berari
gustatzen zaion gauza
arropa dala ta
ireki duanian
sorpresa galanta.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Jon Gandiaga

CHUPA CHUPS

Gaur goizean jaiki naiz
opari gabekin
bihar ahizpan urtiak
ni diru faltakin
pultserak iten hasi
kriston presarekin
Roxy-ko kaxan sartu
Tranpa itzelakin

Ahizpak poztasun handiz
hartu du oparia
oso azkar kendu du
tranparen grazia
etxeke perlak ziala
ohartu da neskia
hurrengoan hartuko dut
hobe erabakia.

Doinua: Txakolina

Egilea: Iزارo Mendizabal



GOMI GOMINOLA

Oparia prestatzen
ta dakar borroka
kotxe bat nahi dut baina
askoz hobe erropa
gona erosiko dut
amak du azoka
nik ere nahiko nuke
inbidiz nago ta.

Oparia ahaztuta
irten naiz kalera
bila joan eta gero
kotxera uztera
lehengusina ikusita
muxu ematera
lan handia ta gero
festan gozatzer.

Doinua: Txakolina
Egilea: Elene Molina





GORE

Salouko egunak bukatzen eta
nik egingo det protesta
hemen nabil ni kaletikan ta
gainera festarik festa
gaur opariak erosi behar
ta hori erreza ezta
ni hemen Saloun ondo nago ta
guztiak neri galdezka

Lehengusinari batek daki zer
agian motxilatxo
amonana ez dizuet esango
akaso karteratxo
diruz bastante larri nago ta
hortxe dago arazoa
lehengusinari motxila eta
amonai muxu goxoa

Etxera sartu lehenengo gauza
denak korrika bizia
ba al dago zerbait neuretzako
eta ba da notizia
hartu zazue bakoitzarentzat
oparitxo merezia
lehengusinak nahiago zuen
beste zerbait berezia.

Doinua: O baserrixo
Egilea: Goretti Unanue

3.
SARIA



HAPPI DENT

Oparia prestazen
ari naiz Urbilen
trenian sartu gera
erosi ondoren
kriston problema dugu
oraingoan hemen
erregalo papela
ez dago etxien.

Doinua: Nire sentimenduak

Egilea: Mainer Gorosabel

IRUJO

Eskolara joateko
berak nau esnatzen
eguardian bazkariak
bera da kezkatzen
ta nik nere amona
asko dut maitatzen
beretzat oparia
ari naiz prestatzen.

Ikusi duenean
nere oparia
irrifartsu jarri da
bere aurpegia
keinu bat egiteko
itxi du begia
ni ere pozik nago
hori da egia.

Doinua: Txakolina

Egilea: Eñaut Viñaras

KUKURUTXO

Nik opari bat nahi det
eman lagunari
baina nik ezdakit
zer egin Aneri
laguntza eskatu det
adiskideari
Arkatzan erosteko
esan dit lehen niri.

Arkatzan nago eta
hemen lagunekin
ikusi dut motxila
beltz koloreakin
baina ezin erosi
diru gutxirekin
han dator nire ama
diru gehiagokin.

Ikusi dut laguna
tristerik pasian
oparia eman diot
bilduta kalia
Anek emozioa
hartu duenian
eskerrak eman dizkit
plazaren erdian.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Elene Aizpurua

LAZARILLO

Oparia prest dago
ta ni ondo nago
ni ohean banengo
ez zara egongo.

Oparia erosi
zu bai, zu melontzi
zu bai zerala ontzi
ta baita paperontzi.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Steven Campos

LOLIPOP

Oparia prestazen
ideiarik gabe
pentsatu beharra dut
besteak zain daude
ez da izan erreza
ta amaitzen gaude
bukauta sekretua
nago askoz hobe.

Lehengusina zegoen
han ospitalean
guri pozik itxuiten
bakarrik ohean
eta guk oparia
gustura ematean
hartzten zuen bakarrik
bera aspertzean.

Doinua: Txakolina

Egilea: June Rodríguez

MAY ANTONY

Nire lehengusinari
opariak eman
ta benetan politak
opari denetan.

Gu beti opariak
ematen gauetan
gu beti lasai-lasai
umore onean.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Kerman Rico

MICHAEL JACKSON

Nire lehengusuari
mineral polita
eta denok poz-pezik
geratuko dira.

Hurrengo egunean
ilusio handia
niri bizikleta bat
a ze oparia!

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Unai Durán



MINNI

Amari opari bat
hartu diotela
erregalu papela
arrosa duela
Gabonak dira eta
poz-pozik daudela
txakur bat egin diot
opari bezela.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Kihana Piriz

PLATANOA

Oparia etxean
prestatzen ari naiz
beretzako opari
alai ta aparta
aita hor da zuritzen
holako patata
begiratzea ez hobe
beretzako baita.

Bere urteak bete
pozak dariola
opari ederrena
etorri zaiola
begietan malkoa
notatzen da hola
bere pelotaria
baita Barriola.



Nere anaiak berriz
hau prestatu dio
hamar mila aterki
opari dizkio
baina nere aitaxok
esan dio tio
pelotako sarrerak
gustatu zaizkio.

Doinua: Orioko balea
Egilea: Nahia Urkaregi

SANDIA

Dendaz denda ari naiz
oso aspertuta
batean sartu naiz ni
gutziz lotsatuta
txakur bat erosi dut
eskuan hartuta
oparia eman diot
ondo prestatuta.

Oparia ireki eta
danak flipatuta
guztiak geratu dira
oso harrিতuta
ama oso mareauta
ta ikaratuta
korrika abiatu da
erdi erotuta.

Doinua: Errota zahar maitea
Egilea: Mireia Lili



SARA

Oparia prestatzen
ari naiz Zubeltzun
nola egiten deten
adi-adi entzun.

Zubeltzun bideo bat
oparitu diet
euren etxea da ta
zer gehio egingo det?

Familia nirekin
zorretan do orain
tabernara jungo naiz
deitzen dala Urgain.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Enaitz Goikoetxea



TARINA

Opariak prestatzen
ari naiz etxean
traste pila bat ditut
narrats sukaldean.

Opari mordoia dut
famiarenak
baina ta handienak
nire aitarenak.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Xabier Beasain



(5B gela)

AGIRO

Oparia prestatzen
ari naiz etxean
ta ni asko poztu naiz
ama ikustean.

Etxera etorri da
boltsak bizkarrean
ni asko poztuko naiz
oparia ematean.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Aitor Aizpurua

ATHLETIC

Amatxo etorri da gelara
aitonarekin batera
ondoren aitonakin joan naiz
birraitonaren etxera
hantxe Ferraria eman diot
ta joan da probatzera
lehenengo kurban bueltatu da
minakin ospitalera.

Doinua: O, baserritxo!

Egilea: Unai Goikoetxea

CHARLIE4

Opari bat lortzeko
jun naiz dendetara
dena garesti dago
banoa etxera
traste zaharren artian
jo det aztertzer
kunplitzeko besterik
hau noa abestera.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Iñigo Etxeberria

GARTZI

Txino dendara joan naiz
papera hartzera
ta txinoak esan dit
bost euro ordaintzera
ni trenean joan naiz
nere lagunana
eta berak esan dit
opari polita.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Javier García

KUK

Oparia egiten
ni noa dendara
untxia erosten dut
banoa etxera
ondo pasatzen ai naiz
nire untxiak
kaiolara sartu eta
banoa lotara.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Ager Aizpurua



LAPARI

Nire laguna Miren deitzen da
bera da zoragarria
oparitxo bat egingo diot
delako maitagarria
hamaika urte betetzen ditu
hori da oso pozgarria
Miren maitea pasa ezazu
egun hau barregarria.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Maria Faces

LOMCE

Dendara joan behar naiz
erropa hartzera
ta dago nire ama
erropa begira.

Hor dago nire aita
oparia ematen
ni ari naiz berari
mila esker esaten.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Galder Gorroño



LOREDEBA

Oparia egiten
a(r)i naiz anaiari
eta laguntza eskatu
nik diot amari
kotxetxo bat egingo
nik orain berari
gustatuko zaiola
esan diot aitari.

Dena bukatu ondoren
etorri zait Ana
eta esan egin dit
goazen beregana
oparia eman ta
bere poztasuna
bera korrika etorri
da azkar nigana.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Lorena Ladera

MANDARIN

Oparia prestatzen
ari naiz biharko
ta ez daukat gogorik
enpaketatzeko.

Bihar emango diot
nire amatxori
eta broma prestatzen
ari naiz berari.

Kriston broma bukatzen
nago goiz-goizean
eta esnatzen ari
dago gaur ohean.

Goizean esnatu da
hamaika terditan
ta oparia eman
diot mahai gainean.

Doinua: Orbelak airez aire
Egilea: Paul Larrañaga

MARIA TERESA
Opariak egiten
hasi nintzen eta
ama eta aita
kantatzen orain.

Amak esan zidan
kantatu dutela ta
oparia ekarriko
digu berak eta.

Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Itsasne Osa

OJMAR
Oparia prestatzen
nago Agerrentzat
txakur polit bat da ta
alaia denentzat.

Txakurrak in du zaunka
eta nik tristura
horregatik joan naiz
jendea jotzera.

Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Unax Urteaga

OMIAMA

Amatxok hogei urte
bete ditu aurten
oparia berria
hari zait eskatzen
ez da oso erraza
horixe bilatzen,
guztia ari delako
asko baliotzen.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Omaima El Amrani

OPARIA

Oparia bildu dut
ilusio handiz
gustatuko al zaion
pentsatzen dut berriz.

Oparia eman ta
gustokoa zaio
a ze lasai nagoen
mila esker dio.

Doinua: Orbelak airez-aire

Egilea: Judit Amilibia

PABLO

Oparia egiten
joan naiz dendara
eta izena dauka
Donostiko Zara.

Zaratikan bueltatu
oparia bildu dut
jarri eta gerora
egin dut nik purrut.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Kaiet Altzibar

PETRONOR

Egun batean hasi
behar oparian
ez daukat pentsatuta
sorpresa ematia.

Hasiko gera orain
oparia hartzen
joango garela orain
dendetara sartzen.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Danel Bereikua

SAKONETA

Oparia prestatzen
nago ni presaka
zorionak jartzea
baino ez zait falta.

Zorion pegatina
ari naiz bilatzen
beste bat aurkitu dut
hasi naiz dantzatzen.

Berari itxaroten
nago ni bankuan
mobietik deitu ta
dagola bidean.

Asko gustatu zaio
ta zer ilusio
poz-pezik joan zaigu
malko bat dario.

Doinua: Orbelak airez aire

Egilea: Eider Itsaso



TARIÑA

Oparia prestatzen
ari naiz luzaro
ez dit denbora emango
ta urduri nago.

Eguna heldu da ta
eman diot jada
asko gustatu zaio
espero bezala.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Naroa Etxeberria

TXERRIA

Dendara joan naiz ta
egon naiz Jonekin
ta haserratu egin naiz
nere diruakin
aitari eskau diot
nere mingainakin
aurpegian joko dio
nere panpinakin
sustoa hartuko du
muelle handiakin.

Kaxa ireki eta
parrez ahoakin
eta oso gustora
nere opariakin
eskerrak eman dizkit
muxu handiakin
ez horregatik esan
eta pakeak in
parre-parrezka dago
bere pozarekin.

Doinua: Bizkaiko txerriarenak

Egilea: Kimetz Etxabe





TXIKI

Nire laguntxo bat da
izena du Izarra
oparitu nahi diot
nire Bi txakurra.

Nire laguntxoari
asko gustau zaio
korrika aldegin det
ta esan diot aio.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Itziar Egaña

TXISPA

Oparia prestatzen
ari naiz biharko
ez badiot ematen
gerauko naiz k.o.
pixkat nerbioso ta
eguna noiz helduko
ta oso pozik nago
amai emateko.

Eman diotenean
inork sinestuko
hori gertauko zala
zoro dagolako
hurrengo oparia
ez dut pentsatuko
infartua izan bada
hil ingo dalako.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Aimar Arrieta



(5C gela)

ALI

Banoa dendetara
oparia egitera
badator nere ama
niri laguntzera
prakak ta kamiseta
bere janzteko era
bagoaz bere etxera
paketea ematera.

Mahaian elkarturikan
gaude denok pozik
oilasko koka-kola
ez da patatarik
oparia emateko
ez dago nerbiorik
amama hau zuretzat
ondo zaintzeagatik.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Alaitz Albizu

AUPA AMAIKA BAT

Zure urteak laster
iritsiko dira
pozez amorratuaz
egongo ahal zira!
Aitonan erregaloak
kristonak baitira
aman erregaloakin
geratu al zea beira.

Zure urtebetetzea
ari gara ospatzen
nire erregaloa
ari naiz prestatzen.
Bizikleta berria
amonari eskatzen
primeran ari gara
zurekin pasatzen.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Unai Etxabe

AUPA ITZIARTARRAK

Anaia eta bixoi
amak eman digu
makina bat gauza ta
pila bat enkargu
gauzak erosi eta
ideiak dauzkagu
opari hoietatik
direla bi xagu.

Hurrengo egunian
goizeko hamaiketan
aita esnatu dugu
gauzak ematean
ama ni eta anaiak
kantatu dugunean
oso pozik jarri da
hura ikustean.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Xabi Iribar



DAVITZA PIZZA

Oparia prestatzen
ari zara niri
oraindik ez aurkitzen
zer ote den hori
ta zuri oparitzen
dizut dena zuri
ta ez niri gustatzen
hartu katagorri.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: David Alonso

IONI

Atxixaren urtiak
dira astelehenian
oparitu behar diot
txakurra kaxian.

Atxixari eman diot
opari polita
poz-pozikan jarri da
txakurra ikusita.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Ion Bikandi

IZETITXU

Opariak erosi
ta gero prestatu
eguna hauxe dela
pixkat gogoratu
azkar ibiltzea da
dakar prometatutako
azkenean alferrik
hainbeste nekatu.



Azkenak iritsiak
a zelako pena
amona ez da enterau
neretzako ona
“Zorionak” abestean
a ze sentimena
laster badatorrela
opari eguna.

Bazkaldu eta gero
datoz opariak
guriak politenak
ta oso berriak
asko gustau zaizkio
gure koplariak
ondo pasa amona
dira zure urtiak.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Elene Izeta

LOREA

Goizean goizo esnatu
egun dotoria
antsiaren urteak
hau da hau zoria!
Asko maite zaitut nik
anaia maitea
ea gustatzen zaizun
nire oparia.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Lorena Sobrado



MAITA

Laster zure urteak
hauxe zoriona!
dendetan begiratzten
guk behar deguna
pentsatzen egon naiz ta
merezi dezuna
koilar txiki polit bat
zuretzat laguna.

Euria egiten du
gau ta egunetan
zure urteak dira
ez zaude pozetan
merendola egingo
duzula gauean
ondo pasa ezazu
zure urteetan.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Maitane Pastor



MAKARRONI

Lagun ona da bera
ta maitagarria
urte muga ospatzeko
dugu bazkaria
guztiona hurbildu
neska dotoria
maite zaitut Lorena
hartu oparia.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Maria Mendoza



MANCITIXU

Bihar ez nago hemen
noa lehengusinana
Donostira noa ni
ta familiana
tarta bat egin nahi dut
egingo dut flana
esfortzua egin ta gero
bukatu dut lana.

Donostira joan naiz
ta egin dugu festa
Leirek opariak jaso
pijama ta bata
flana gustatu zaio
oso ona baita
“Zorionak” kantatu
ta jan dugu tarta.

Doinua: Xarmangarria zira

Egilea: Ibone Mancisidor

MANTARRAINA

Gaur amonan urtiak
eta bazkaria
elkartu gera denok
egun pozgarria
etxetik ekarri dut
zuretzat Maria
ea gustoko dezun
nire oparia.

Doinua: Xarmangarria zira



MARTI

Amonaren urteak
badatoz gainera
oparia ematera
goaz gu etxera
oso pozik jarri da
ta urduri bera
zure eguna denez
goazen abestera.

Oso egun polita
goazen jolastera
amonaren etxean
ondo ari gera
aspertuta gaudenez
bagoaz kalera
opariak ta gero
goxo bazkaltzera.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Unai Martiartu



MIRA

Gaur amaren urtiak,
izango al dira?
amamari galdetu,
noa gaur herrira.
Plazan gelditu naiz ni,
hortikan begira.
azkenean badakit,
noala Eroskira.



Eroskitik joan naiz,
bonboiak hartuta.
laga ditut etxean,
hortikan gordeta
anaiak hartu eta,
denak ditu bota.
Amak ikusi eta,
denok lotsatuta.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Mirari Redondo

NOBI

Nire lehengusuaren
urteak laster
oparia aukeratzen
gaur ta bihar ere
gaurkoz bukatu dugu
ni ari naiz nazkatzen
gabetan egoten naiz
oparia prestatzen.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Ibon Ibarluzea

ORU

Gaur nere aman urtiak
Inuxente eguna
gezurretako arratoi
gustoko ez duna
oparia hartuta
ireki dio lagunak
kriston sustua hartu
liatu duguna.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Aimar Oruesagasti

PIRULO JUNGLE

Oparia biltzeko
han dago papela.
Aitak eramaten du
pintore txapela.
Orain sagarra jaten
ta hori ere ustela.

Aspertuta nago ni
itxoiten oparia.
Lehenago eman beharko
hau da gaztedia.
Oparia ematerakoan
fuera malaria.

Doinua: Bertsuak jarri dizkat

Egilea: Jokin Narbaiza

PRINGELS

Oparia prestatzen
ari naiz etxean
eskolan utziko dut
bere estutxean
etxean ibiliko da
goxo-goxo ohean.

Doinua: Bertsuak jarri dizkat

Egilea: Jon Ajuriagoikoa

SAALEEGII2

Oparia prestatzen
gaude amamari
oso ondo tratatzen
digulako guri
oso pozik sentitzen
naizela orain ni
baina ez dakigula
zer ta non erosi.

Joan naiz lore-dendara
lorak erostera
jarri ditzan etxean
nahi dituen eran
orain berandu da ta
joan zaitez ohera
eta bihar oso goiz
esnatuko gera.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Paula Del Olmo

SINGLU

Lehengusuaren urteak
martxoak hamar da
ondo pasatzekoak
dira egun handiak.

Oparituko diogun
oparitxoa da
hamar joko dituen
PSvita dala.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Aner Asensio

TUTANKAMON

Gaur nere aitan urteak dira
eta ez dakit zer egin
kalera joan naiz zeozarren bila
eta mordo gauza daude.

Mobilen dendan sartu naiz eta
mobilak bai politak!
nere aitari emango diot
GPS-dun mobila.

Bere urteak iritsi dira
ta emango diot mobila
kaja batean emango diot
beretzako oparia.

Baino nere aita asko poztu da
dauka poz izugarria
esan dit asko gustau zaiola
nik emandako oparia.

Doinua: Dios te salbe
Egilea: Iñigo Osa



6. MAILA (6A gela)

AIZGORRI

Oparitxoa daukat
nire amarentzat
eta ere baita
aitatxorentzat.

Oparitxoa daukat
anaiarentzat
eta ere baita
lagunarentzat.

Doinua: Maritxu I
Egilea: Unax Alvarez

ANBOTO

Nire amaren urteak bihar
ta ni nago hemen ero
oparia ez dut erosi ta
bera jarriko da bero
denda guztiak daude itxita
igande izanez gero
ene amatxo esaten dizut:
maite zaitut egunero!

Doinua: O, baserritxo!
Egilea: Tsehainesh Egaña

ANDUTZ

Nire lumatxoa da
nire osabarentzat
oso politak dira,
dira berarentzat
zaharra den denda bat
oso politatzat
bihar bazkal orduan
ai hau ze pozatzat!

Doinua: Nire sentimenduak

Egilea: Paula de Maria

ARRIOLA

Ene lehengusinatxo
maite polit hori
eman nahi dizutela
bizikleta zuri
asko merezi dezu,
oparia tori
musutxo handitxo bat
zuretzat opari.

Doinua: Nire sentimenduak

Egilea: Maider Almortza

EUSKITZE

Ume guztiak beti prest gaude
panpinekin jolasteko
gauza berdina gertatzen zaigu
opariak jasotzeko
gaur Olentzero gaixorik dago
ta eskau dit laguntzeko
Euskal Herriko ume guztiak
irribarrez ikusteko.

Egiten nago oraintxe bertan
eskautako oparia
Olentzeroren ohitura zahar hau
ez deulako nahi galtzia
nire lanbide berri eder hau
benetan da berezia
rarua in zait nik egindako
opari bat jasotzia.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Ibai Ponce

FREGONA

Amaren urtebetetzea ta
dena nagola prestatzen
opari eder galant bat daukat
baietz jarri bai dantzatzen
lore sorta bat prest edukita
hasiko da emozionatzen
ta zorionak amatxo maite
asko zaitut nik maitatzen.

Goizean goiztik nago jaikita
ta hasi naiz ni urduritzen
lora dendako mutiko horrek
ez du denda irekitzen
bertako telefono horretan
hasi beharko naiz deitzen
heldu ta laster eskatu diot
hasteko loreak jartzen.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Arantxa Odriozola

GAMBA

Nire amaren urtetarako
opari bat erostera
nire itxulapiko kuttuna
apurtu eta kalera
bi euro bana hartu ditugu
ahizpa ta biok batera
azkenerako desesperauta
Eroskira sartu gera.

Ahizpa ta biok ez degu pentsau
ta iganderako irten
denda guztiak itxi zaizkigu
horrela segundu baten
Eroski zabalik zegoen eta
ez degu hartu atsedeen
amari erosi dizkiogu
hamairu mila sarten.

Doinua: O baserritxo

Egilea: Naroa Laka

GORA LUZARO

Aitarentzako gaur
daukat opari bat
oraindikan etxean
prestatzeke daukat.

Merendola hasita
aita mahaian bueltan
oparia emango
diot orain bertan.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Nerea Garrido



ITARI

Hementxe nabil dendetan bila
alde batetik bestera
jostailu edo bere arropak
zein ote dugu aukera,
ilusioa nondik lortuko
hori da nire galdera,
nire anaiaren gustoko gauzak
oparitako erostera.

Denda batera sartu naiz eta,
dotorea da jertsea
baina oso zaila izango da
burutik bera sartzea
nire anaiarekin ez da erraza
gustokoa asmatzea,
berak nahiago izango luke
jostailu artean galtzea.

Doinua: Badira hiru aste

Egilea: Irati Arrazua



KATU HEGALARIA

Amatxo zer moduz zure urteetan
zorionak zuretzako
nik oparitxo bat prestatu dut
esnatzera etortzeko
ez da gauza handirik baina
benetan daukazu gustoko
zure irrifarre polit horrekin
ez nauzu engainatuko.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Iosu Valenciano





KATXETADAAAAAAA

Nire amari gustauko zaio
kafetera ematia
baina inorrek ez du soltatzten
dirua, hau komedia!
anai artian erosiko deu
ezin da bestela, ia
seguramente hartuko dula
gustoz nire oparia.

Doinua: O, baserritxo!

Egilea: Josu Salegi

LA VOZ

Nire amatxo pozikan dabil
laister du egun handia
opari baten bila gabiltza
ta espero gustatzia.
Bila ta bila egon ondoren
aurkitu dut oparia
lore ederra emango diot
ta besarkada bat ia.

Bere eguna iritsi da ta
a ze goiz ikusgarria
nik egin eta emango diot
eguneko oparia.

Oso pozikan jarri da eta
ia negarrez hasi da
niregana etorri da eta
besarkada baten bila.

Doinua: O baserritxo

Egilea: Jon Garrido





MESSI

Nire etxera joan behar det
oparia margotzeko
ondoren forratu eta gero
dendara joan gogortzeko
etxera bueltatu behar naiz
lagunari itxaroteko
opari bat prestatzen ari naiz
oso polita delako.

Doinua: O, baserritxo!

Egilea: Kevin Loreto

MUNDUKO BAKARRA!

Igandea da dendak itxita
pentsatzen nago oparia
nire eskulan ta marrazki bat

hori liluragarria
opari-papela erosi gabe
hau da bai kasu larria
bururatu zait erabiltzea
egunkariko orria.

Doinua: O baserritxo

Egilea: Olatz Matias

NIKOLASMINI

Nire aitaren urteak ziren
opari bat egin nion
oso espeziala eta polita
bihotzez prestatu nuen
oso pozik zegoen aitatxo
oparia jaso ondoren
eskerrak eman eta pozik
kalera biok joan ginen.

Doinua: O, baserritxo!

Egilea: Ibai Etxano



PAPERA

Martaren urtebetetzea da
ta prest daukat oparia
betidanik izan da laguna,
nahi diot atera irria
horregatik erosi diot nik
txakur oso berezia
belarri txikiak ditu eta
ile beltz eta txuria.

Igande arratsaldea denez
Marta ikusi dut Deban
oparia eskuan dudala
zaunka entzun da barruan
zeharo harrituta hurbildu
ta nik oparia eman
kaxa zabaltzen hasi denean
laguna hasi zait dantzan.

Doinua: Badira hiru aste

Egilea: Maialen Gonzalez

POU

Opari pat prestatzen
ari naiz gustura
guraso ta familia
zoazte plazara
zuentzat merezita
oparia egitera.

Gurasoak poz-pezik
korrika etxera
hementxe opari bat
jaso ta harrituta
familia poz-pezik
polita da eta.

Doinua: Bertsoak jarri dizkat

Egilea: Enara Mendoza



ROTULADOREA

Nire aitari gustatzen zaizkio
bere hoge txoritxoak,
badauzka nahiko kanarioak
bai eta kardantxuloak.
Baina hil egin zaizkizu zure
hamabi hegaztitxoak,
hementxe oparitzen dizkizut
zuretzako bi mixtoak.

Doinua: O, baserritxo!

Egilea: Haritz Aperribay

SALBATORE

Opariren bat egin nahi nuen
eta zera pentsatu det
nigatik egingo luketela
maitatzen naute beraiek
nahiz eta ibili ezkutuan
sorpresak jarri dizkiet
niretzat garrantzitsuak dira
eta hainbeste zor diet. (BIS)

Nire pertsona gertukoena
pentsa hirurok zaretela
maite nauzuten baino gehiago
ezin maite daitekela
hartu zazute oparitxo hau
nire detaile bezela
aitortuko det eginda oso
pozik sentitzen naizela.



Zer oparitu ziteken eta
burura etorri zait hau
zuen babesu edukitzeak
ondo sentiarazten nau
bertso sorta hau nire opari
bat, bi, hiru edota lau
horiei buelta emanez nabil
aspaldi egun eta gau.

Txikitatikan izan zaituztet
zuek nire idolotzat
gauza handirik ezin da egin
baina ahalegindu behintzat
nire bertsozik sentikorrenak
nire familiarentzat
zer poza zuek hirurontzako
ze ilusio neretzat.

Zenbat poz eta zenbat tristura
ohi den famili batean
batzuek denon onerakoak
besteak denon kaltean
ze une goxo oparitzo hau
aurrez-aurre ikustean
etxeko txikienarengandik
sorpresa bat bat-batean!

Doinua: Badira hiru aste

Egilea: Aloña Salegi



VANS

Opari bat prestatzen
nago jolasteko
bizikletak baloiak
dena ez aspertzeko
amari edo neri
nago emateko
azkenian opari
hau da neretzako.

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Endika Ruiz



(6B gela)

AAPOL

Opari politak bilatzea,
ez da erreza egiten
nire izeba azken urteetan,
ez dut kontentu izaten
baina opari polit bat orain,
saiatu naiz ni erosten
horregatikan izeba Miren,
asko poztuko da aurten.

Apirilaren hogeita hamarra,
iritsi da azkenean
oso urduri nagonez ditut,
tximeletak sabelean
apaingarri bat erosi diot,
eta neure izenean
gustauko zaion galdera dabil,
nire buru barrenean.

Doinua: O baserritxo

Egilea: Jone Gomez

AGURE FISH

Lehengusuaren urteak dira,
non dago bere oparia?
Bere etxean sartu naizenean
harrapau nau ia-ia,
kuartoan nago oso urduri
eta pentsakor jarria,
ta azkenean okurritu zait
leihotikan irtetia.

Denda batera joan naizenean
han zeuden baloi pilua,
barrura sartu eta jarraian
pentsau det Champions-ekua.
Dirua eman baloia hartu
nekatu nintzan mordua,
ta azkenean hurbildu in zait
nire lehengusu mutua.

Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Julen Perez de Albeniz

AMITXI

Nire anaiak hogeit urte gaur
emango diot saria
pentsau ta pensau eta hartu det
jostorratza ta haria.
Baina ez dakit zer egin eta
esango diot egia
ondo pentsatuz egingo diot
lagunekin afaria.

Bere lagunak iritsi dira
atean daude itxaroten
nire anaia ohean dago
ordenadoran jolasten.
Atea irekitzera joan da
eta Aitor ez zen heltzen
oso pozikan pasatu du gaur
lagunekin hitz-egiten.

Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Amaia Isasti

ARENITA

Oparia egiten ari naiz
lagun batentzat irrikiz,
zuretzat natualezko opari
polit-polit bat antzerkiz
txinoetako gauza batzuk,
bera hasiko da irriz
urtebetetzeko afaria
polita eta opari handiz.

Apirilaren 26an
afari merendiakin
ta, azkenean, nik pentsatu det
zer opari-mota egin.
Polit-polita da eta nago
gusto handiz, pozarekin.
Arantxari nik egingo diot
soineko bat loreekin.

Doinua: Non geratzen den denbora

Egilea: Janire Lopetegi

BITXIBOLA

Pentsatzen nago Gabon hauetan
familiarantzako oparia,
okurritu zait asko gustatzen
zaigula bidaiatzia.
Nik Taj-Mahala ikusi nahi det
orduana destino India,
familiarantzako oparia da
bidaia izugarria.

Olentzero eguna da bihar
oparia prestatua,
ohera sartu ta han barruan
pentsatzen nago biharkua.
Iritsi da gaur egun handia
oso urduri dut burua,
familiari nire oparia
gustatu zaio pilua.

Doinua: O baseritxo
Egilea: Pablo Ron

BITXITO

Sorpresatxo bat daukat gordeta,
nire lagun minarentzat,
eskuz eginda dago, jakina,
sosik ez nun gehiorentzat.
Gogoko al du? Galdetzen dut nik
egokia al da beretzat?
Garrantzitsuena egitea da,
maitatzen duzunarentzat.
Lagun guztiok elkartu gara
oso gutxitan bezela,
nire oparia desastre bat da
daukat problema itzela,
ez dut nahi berak jakiterikan
egilea ni naizela.
Eskerrak aurten egin duguna
lagun izkutua dela.

Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Ane Txurruka



BORBORITO

Kaixo hemen nago ta
oparia iten
zer moduz zaude hor zu
aspertuta hantxen
oparia erosten
ez dakit ze opari
nahiko dituzten.

Goazen ba eroatera
papelatxoarekin
hor dago ba umea
bere lagunekin
pozik jarriko da ta
oparitxoarekin
agur nire laguntxo
banijua horrekin.

Doinua: Maritxu

Egilea: Ibai Bernal

ELGORURO

Bihar goizean kalera noa
opari bat eroatera
bota marroiak eta luzeak
nijoa ni bilatzera.

Erosi ditut zapategian
banoa etxera ematera
nire amaren urtebetetze
eguna ondo ospatzera.



Aitaren eguna iritsi da
ez daukat ezer prestauta
ahaztuta neukan bere eguna
ez dut ezer erosita.

Oraintxe bertan kalera noa
txerritxo apututa
oparia erosi ta gero
noa kartera hustuta.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Elene Gomez

INURRI

Eguardi hontan denda batera
sartuko naiz oso bero
urtebetetze ospatzen duen
16 urte gehiago
bere gustoko gauza polit bat
topatzea espero
nere ahizparen urteak dira
eta oso pozik nago.

Adin honekin zaila omen da
gauzak opari luzaro
baina momentu honetan bada
ondo aprobetxa oparo
seguruenik zalantza gabe
modan dagona nahiago
eta ez badu nahi hurrengo urtean
ez diot ezer emango.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Maite Ramos



MAPED

Bihar amaman urteak eta
daukat arazo larria
detailetxo bat pentsatu nahian
nago mahaian eseria,
halako baten bururatu zait
ideia zoragarria
nire amamai egingo diot
opari izugarria.

Nik pentsatu dut bertso polit bat
nire amamai itia
marko batean ipini eta
alboan lorez betia,
nire amama txikitatik da
bene-benetan maitia
ni beti nago hazi ta hazi
baina naiz bere txikia.

Doinua: O baserritxo

Egilea: Uxue Egaña

MARIATXI

Arratsaldean gerau gera gu
opari bat itekotan.
Kotxea hartu eta jun gera
Urbilera gu konpretan.
Zapata dendan sartu gera ta
zapata denak kaxetan.
Zapata onak aukeratzea
oso zaila da benetan.



Ez deu aurkitu bere gustuko
zapata bat bera ere ez.
Baloi txuri bat ta kamixeta
gustuz hartuko du pozez.
Itzuli gera eta anaia
agudo hasi zait galdez
ea ekarri diodan berai
opari txiki bat, barrez.

Hurrengo eguna iritsi da ta
nere anaian urteak.
Ea ze aurpegi jartzen duen
ikustean opariak.
Eman diogu eta barrezka
neri begira begiak
a ze aurpegi jartzen duana
ireki duanian biak.

Doinua: O baserritxo

Egilea: Maria Pérez



MILKA

Ni gaur goizean noa bakarrik,
opari bat eroatera.
Orain banoa Alejandrone,
oparia ematera
dakidalako nahi duela ta,
berantzako delako ta.
Nire oparia polita da ta,
espero det gustatzea.





Ni gaur goizean noa bakarrik,
gauzatxo bat erostera.
Orain banoa nire amarena,
gauzatxoa ematera
dakidalako nahi duela ta,
berantzako delako ta.
Nire gauzatxoa polita da ta,
espero det gustatzea.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Jon Leiro

MINI MOUSE

Nire etxean nengoenean
sukaldatzen bazkaria
WhatsApp-ean esan zidatenez
gonbidauta afarira!
Maialenei oparia prestau
egingo det marrazkia
martxoaren hogeita bostian
jasoko du oparia.

Marrazkiari jarriko diot
belarren artean Deba
zeru urdinean eguzkia,
kaioak itsasaldera
bere eguna iritsi da
merendola gualdera
oso polita dela esan duenez
denok pozik jarri gera!

Doinua: Badira hiru aste

Egilea: Irati Martin



MISAKI

Opari handi bat egiteko
ilusio handiz nago
telefono, ordenagailu
ez dakit zertan hi dago
musu bat edo karta polit bat
ta ez dakit zer gehiago
azkenean bai, "Fotos narradas",
oparia listo dago.

Bere etxera pendrive-arekin
joan beharra a ze lotsa!
tinbrea jo det, urduri nago
ez zait irteten ahotsa
gustatu zaio ta pozik nago
egingo dut nik ametsa
etxera noa irribarraz
a ze egun aberatsa!

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Isoken Ebowe

MOSKITO

Iritsi zen bai egun egokia
opariak emateko
nere lagunaren urteak dira
hau bai poza beretzako!
oraindik baina oparia egin behar
dena azken momenturako
ta azkenean nere oparia:
muxutxo bat beretzako.

Lagun guztiak geratu ginan bai
sorpresa bat emateko
denak opariak hasi dira ematen
baina ni ez naiz ausartuko
ni falta nintzen eta hor joan naiz
oparia emateko
ta azkenean nere oparia
berari asko gustau zaio.

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Nerea Sanz

ROBIN FOOD

Oparia prestatzen ari naiz
izeba Anerentzako
gustatzen zaizkio lorontziak
beraren loreentzako.

Txinota(ra) joan naiz zerbaiten bila
baina ez dago beretzako
txinua asko haserretu da
jendia espantau deulako.

Opariak prestatzen ari naiz
baina nik ez dakit zer in
izebarentzako oparia
nijua itera amakin.

Loradendara jun gera biok
zerbait erosteko asmoz
baina azkenian pastak erosten
bukatu degu guztiok.

Doinua: Aita semeak

Egilea: Urko Azkoitia


THE WYLLYREX

Nire amaren eguna da ta
zertxobait prestatzen nago
material asko erabiltzen ta
amorez eta gogoz.

Berriro egin dut dena
atera arte hobetoago
azkenean atera zait
ta dana hobeto dago.

Doinua: Santa Ageda

Egilea: Markel Lizaso



(6C gela)

ALIAS

Neure amonarentzat
opari polita
marrazki bat beretzat
onena dela eta
gero ere bertso bat
nere amamari
asko gustatu zaio
bertso txiki hori.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Asier Feijoo

ANONIMUS

Nire lagunarentzat
doa oparia
eta ez dut erosiko
arkatz bat berria.

Danbor profesionala
eman diot neria
ta berantzat izan da
kriston alegria.

Doinua: Maritxu 2

Egilea: Xabi Larrañaga

BERRITSU

Opari txiki bat dut zuretzat
ez dakit gustauko zaizun
bertso polit bat eta lore bat
muxu bat eman nazazun.

Nire oparia agurtzeko
gustatuko zaizula ta
nire amatxo zara zu eta
nire Goretti polita.

Doinua: Kontu barri bat

Egilea: Miren Chivite

DANTZARI

Laguntxo neure oparia bai
zuk gehien gustuko duzu,
zaldian ibiltzeko txartela
eta ikusteko usu.

Bueno oso ondo pasatzea
lagunekin jolastea,
bueno ni hemendik banoala
muxu handi bat maitea.

Doinua: Hiru aste badirela

Egilea: Samantha Cardoso

DON ANONIMO

Amonatxo maitea
bihar dugu ospatzen
zure eguna da ta
zer zaizu gustatzen
zuk gauza xebreak
dituzu maitatzen
zuri zer emateko
ni nago zoratzen.

Oso martxosa zera
behintzat neretzako
beti duzu asmoa
gaztea emateko
ez eduki beldurrik
ondo pasatzeko
sarrera emango dizut
diskotekarako.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Jon Txurruka

DON PERFEKTO

Oparia egiteko
hainbat buruhauste
balo ta bizikleta
zuretzat nik uste.

Lehengusu ona zera
ta futbolaria
zure urteak dira
hartu oparia.

Hemeretzi urte handi
beteta gizona
ia karneta ba duzu
hau da zoriona!

Kotxea garestia
motorra gutxio
lehengusuari biak
gustatzen zaizkio.

Motorra oparitzea
erabaki dugu
kejatzerik ez duzu
asko balio du.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Xabier Uranga

DRAKULA

Nere tripa txiki hau
in zait gizenegi
ezin det kontrolatu
ezta ere ibili.

Nahiko nuke argaldu
hori bai opari
polita eta astuna
nire tripa honi.

Argalduko banuke
izango nintzen bai
neska guztientzako
esaldia "karai".

Argaldu eta gero
ez nintzan izango
txulito guztientzako
"el feo y gordo".

Hori dana izango zan
nahi nukeen aukera
ezingo nuke aldatu
neure izaera.

Doinua: Soldadu sartu nintzan

Egilea: Peru S.A.

LAPARI

Oparia prestatzen
ari naiz goizean
aprobetxatuz ama
ez dagola etxean
pentsatzen aritu naiz
opari politean
lore sorta bat eman
diot azkenean.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Mainer Corrius

MAE

Opari bat prestatzen
nago Irneri
ta asko kostatzen zait
prestatu opari
dirua nabil biltzen,
emateko hori
dirua ezin aurkitu
esan diot amari.

Doinua: Intsumisoarena

Egilea: Rebeca Arroyo

NESKA

Otsailaren hiruan
Evaren urtiak
zazpi urteak bete
ditu gaur lagunak
oparitu dizkiot
pultsera moreak
berak oso gustoko
baititu pultserak.

Doinua: Intsumisoarena

Egilea: Irune Ruiz

PITUFINA

Kartera bat egiten
nabil Mariari
lan asko falta zait ta
nago oso nagi.
Hasi naiz pegatzen ta
burua adi-adi
iritsi da ordua
bukatzeko hori.

Doinua: Astoa ikusi nuen

Egilea: Eider Pérez

PUAMORA

Biltzen ari naiz erregalua
paper kolore horia
nire amona maitetxoantzat
prestatzeko oparia
bufanda eder eta polit bat
daukat berde koloria
muxu handi bat bidaltzen dizut
espero dut gustatzia.

Oparia eman diodanean
jarri da benetan pozik
erregalua ireki duenean
poztu da gehiago oraindik
kalera eraman du jantzita
soineko eder bat gainetik
emango (d)izkizut bi muxu handi
eta besarkada bat nik.

Doinua: Badira hiru aste

Egilea: Elaia Oiartzabal

ROMANTICUS

Oparia prestatzen ari naiz
nere neskalagunantzat
oparien denda(ra) jun eta
telazko bihotz eder bat.
Gustuko ditu gauza horiek
maitasunen kontuentzat
nire bihotza ireki baitut
bakarrik neska horrentzat.

Doinua: Badira hiru aste
Egilea: Bitor Garitaonandia

TARIÑA-2

Oparia prestatzen ari naiz
gustauko zaion asmotan
ahalegindu nahiko nuke nik
ama zoriontzen bertsoan
haserre batzuk ere izan arren
bion artean sarritan
berarekin amets ugari
egiten dut nik bai lotan.


Doinua: Arratsalde on lehendabizitik
Egilea: Intza Sudupe

ZIPI

Hemezortzi urtekin
dagoela Sara
bihar bere urteak
hemeretzi jada.

Txaketa urdin bat ta
loreak ugari
erosiko diot nik
urtetan berari.

Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Malen Arakistain



D.B.H.

ANDEREÑO
“ZENBAT SORPRESA”

Ni betidanik nintzen
neskatxa pobrea
orain bizitza daukat
askoz be hobea.

Bi bi sei bost zapi sei
zenbakia tokatu
loteriarengatik
festa bat ospatu.

Lehen nire bankuan
dirurikan ez zan
eta orain nik daukat
txalet bat hondartzan.

Euritsu egun batean
nengoen ni beldur
nere etxe ondotik
dabil pila bat ur.

Hondartzako etxera
olatu bat heldu
dena urez beteta
dena zait umeldu.

Hau bai hau sorpresa!
ez nuen espero!
Loteriaz gainera
txalet bat ur beroz!

Doinua: Ama begira zazu
Egilea: Alba López



ARGAL
“NIRE AMAREN BERTSO POLITA”

Atzo nik hartu nuen
notizi tristea
ama gaixo zegoen
hori albistea.

Ama didate niri
ospitaleratu
gaixo dakagu eta
behar operatu.

Nire ama lanbidez
izan enfermera
medikuan zegoen
gaixorik da bera.

Nahiz ta berak dioen
ez larria izan
uste du hark duela
kriston kuentitisa.

Bildurtuta zegoen
orratza ikusten
korrika ihes egin du
hark halako baten.

Etxera itzultzeko
erantzi du bata
kaleko arropa jantzi
ta hartu du alta.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Josu Arroyo





EUSKALDUN PETOAK
“EZ NUEN USTE HAU GERTATUKO ZENIK”

Euskaraz bizi izan naiz
beti-betidanik
eta oso harro nago
guzti horregatik.

Euskaraz hezi naute
jaio nintzenetik
ez dut inon ikusi
hizkuntza hoberik.

Urteetan barrena
hainbat gabezia
normaltasuna degu
ongi merezia.

Defendatu nahi dugu
borroka bizian
aspalditik datorren
altxor berezia.

Maiz euskara utzi eta,
goaz erdarara
ezer eman ez digun
beste hizkuntzara.

Arrazoia ez dakit
baina ez da normala
euskaldunak erdaraz
harantza eta honantza.

Oso harritura nauka
fenomeno honek
erdara darabilten
pertsonek guztiek
euskara utzi duten
neska-mutil hoiek,
txalo bat merezi dute
euskaldun petoek.

Doinua: Triste bizi naiz eta

Egilea: Julen Arufe

3.
SARIA





FELIPA
“LAPURTU EGIN ZIDATEN”

Lapurtu egin zidaten
niri atzo gauean
eta ni lo nengoen
etxeko ohean.

Esnatu nintzanean
ez zegoen ezer
eguna hasi nuen
nik bastante oker.

Telefonia hartu
deitzen hasi nintzen
honantza zetoze
niri esan zidaten.

Etorri zirenean
denuntziatu zuten
lapurra kartzelara
joan ziren ibiltzen.

Herria ja ez zegoen
arriskuarekin
guztiak pozik jarri
eta dantzan egin.

Ta gu beldurrik gabe
joan ginen etxera
ondo egoteko eta
lasai gainera.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Nora Iriondo





IEUP

Ez dut inoiz zalantzan ipini
egun txarrena izan zela,
oraindik ez dut sinistu gure
artetik joan zinela,
lehen bizimodu txarra nuen
orain, berriz, da ustela
egia da gauzak gutxien espero
duzunean datozela.



Egun beltz eta ilun batean
joan zinen ustekabean
denon bizitza aldatu egin zen
zuk utzi gintuzunean
nahiz ta gure artean ez zauden
zaude nire bihotzean
zure ahotsa sentitzen baitut,
gauero oheratzean.

Inoiz bananduko ez ginela
biok egin genuen zina
baina zin hori ezinezkoa da
ta bihurtu da gordina
min gogorretan gogorrena da
faltan botatzearen mina
jakin ezazu bertso sorta hau
zuretzat dela egina.

Doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

Egilea: Ekaitz Zubimendi





IXIL

“SORPRESA”

Gaur joan naiz etxera
anaia aurkitzera,
baina konturatu naiz
galdu in detela.

Poliziana jun naiz
korrika batian,
eta erantzun didate
ikusiet parkian.

Parkera ere jun naiz
ni ziztu bizian,
eta han aurkitu det
nota bat lurrian.

Notak esaten zuen
egin kasu guri
bestela zure anaia
hilko da azkarregi.

Irakurtzen jarraitu
eta egin diet kasu
kontuz joan etxera
arriskuan zaude zu.

Etxera iristeko
nik banuen presa
dena txantxa izan da
zelako sorpresa!

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Roke Etxeberria



JOXEPA
"DESPISTEA"

Lapurtu egin didate
norbaitzuk mobila
ta egun guztia nabil
telefono bila.

Ez daukat argazkirik
ezta zenbakirik
ez daukat lagunei
deitzeko modurik.

Amari esateko
nik daukat bildurra
ez dakit ze(r) izango den
bronka edo zigorra.

Nire mobil berria
ez denez ageri
abisatuko diet
munizipaleri.

Ez dute aurkitu ta
oso gaizki nago
amak ez didalako
berria erosiko.

Azkenean zegoen
mahaiaren gainean
ta orain pozik nago
agertu denean.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Paula Iglesias



LUZE
"LAPURRA"

Ezin dut nik sinestu
gertatzen zaitena
kaletik noan eta
kendu didatena.

Gaur kalera irten naiz
umore onean
baina asko txartu zait
erori batean.

Lapur nazkagarria
gurutzatutakoa
ez dida bueltatuko
hark kendutakoa.

Ez zegoen kalean
batere ertzainik
ehiza erraza nintzen
poltsa bategatik.

Orain etxean nago
baina ezin sartu
giltza kendu didate
hau ez da hobetu.

Nire ama etorri da
bronka botatzera
momento polit hauxe
ez doa hobera.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Andoni Ibarguen



PANTXIKE
“LOTERIAREN SARIAK”

Ni ez naiz inoiz izan
ezertxoren jabe
orain dela bi egun
ia diru gabe.

Loteria tokau zait
kriston poza daukat
diru pila honekin
hartuko dut kit-kat.

Lau zero sei bost bi
nire zenbakia
diru pila lortzeko
hau da giltzarria.

Afrikara bidaia
nahiko nuke egin
baina hemen baditut
nik hainbat zeregin.

Txutxedenda erosi dut
txikleak saltzeko
palomitak ta pipak
astero jateko.

Azkenean ez da izan
nire zenbakia
eta itzuli behar dut
daukaten guztia.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Teresa Aceña

RONALDA
"TOLOSAN PARTIDOA"

Tolosara joan ginen
gu autobusean
oso partido zaila
genuen aurrean.

Arbitroak eman zun
partido hasiera
eta denak joan ginen
baloia hartzera.

Gu denak hasi ginen
oso-oso urduri
baina gola sartzea
ez da erreza guri.

Ekipo gogorra da
etxean Tolosa
guk puntuak lortzeko
leku aproposa.

Sartu genuen gola
kórner baten buruz
baina gero beraiek
guri remontatuz.

Azkenean guk bi gol
ekin eta ekin
eta etorri ginen
garaipenarekin.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Ane Amutxastegi

RUBIO
"MUGIKOR BERRIA"

Nire urtebetetzean
kriston afaria
eta eman didate
kriston oparia.

Opari izugarri hori
mugikor berria
eta erosi nuen
fundatxo gorria.

Atera nuenian
lagunak flipatzen
ta hasi zitzaizkidan
zenbakiak ematen.

Dena deskargau nuen
whatsapp ere bai
eta hementxe nago
nork idatziko zain.

Parrezka beti nabil
lagunengatikan
txorakeriak esan
parrez kaletikan.

Egun hauetan nago
gora eta behera
mobilakin nagola
asko engantxauta.

Doinua: Ama begira zazu
Egilea: Hodei Monasterio



TOKERO
"ATHLETIC 2-1 MANCHESTER UNITED"

Athletic da onena
Madrilen atzetik
baina egunero dago
Reala azpitik.

Partidua hasi da
zero eta zero
bankilotik atera
ta "gol de Toquero".

Gero bandatikan
korrika joan zen
Susaetak zentrau
rematau Llorentek.

Nik pentsatzen nuen
bukatuko zenik
baina penaltia
sartu zuen Rooneyk.

Gero nerbixuak
sentitu nuen nik
baina beti irabazle
izan da Athletic.

Partidua bukatu da
eta hau zortea
Athleticek irabazi du
denontzat hobea.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Mikel Albizu





URA
"BERTSOESKOLA"

Arratsaldeko zazpiak dira
bertsotarako ordua
betiko gelan sartu ta gero
martxan jarri det burua
bat-batekoa botatzen hasi
ta nolako apurua,
bertsotan ondo egitea da
nik daukadan helburua.



Bertso eskola iritsi zaigu
momenturik txarrenera
jende ugari elkartzen ginen
alai ta pozik gainera
baina albiste txar honengatik
burua joan zait behera
bertso eskola bukatu zaigu
ez du egingo aurrera.

Albiste txarrak izaten dira
eta hau ez da lehena
baina aurrera egin behar da
atzean utzita pena
itxaropena ez dugu galdu
eta eman dugu dena
bertso eskola bat sortu dugu
bertan ikasle naizena.



Guztiok pozik elkar txintxatzen
gaur ez gara ixilduko
esan didate "utzi bertsoak"
ez naizela damutuko
jendeak esaten duenari
egin behar diot uko
bertsotarako dudan gogoa
ez dit inorrek kenduko.

Doinua: Murumendiko sorgina

Egilea: Aitor Arakistain





ZURBIL
"POBRETIK ABERATSA IZATERA"

Hogei euro aurkitu
ditut gaur kalean
orain sartuko ditut
nik kutxa fuertean.

A zelako zortea
ditut hogei euro
halako aurkikuntza
ez da egunero.

Berrogeita hamar euro
hurrengo egunean
aberatsa egingo
pobre beharrean.


Palazio bat daukat
etxe garestia
karneta ateratzeko
dut Lanborghinia.

Nik egin dut festa bat
famoso ugari
garbitzeko pereza
desastre handi hori.

Kalean ikusten dut
askoren negarra
nik nire diruakin
asetzen beharra.

Doinua: Ama begira zazu
Egilea: Alejandro Delgado





NAGUSIAK

BERTSOLARI

Beti izan dugu ene laguna
batak bestearen antza
gaiztakeriak egiteko guk
inoiz ez genuen zalantza
zahartzen hasiak gara baina
zu ez zara heldu antza
beti zoaz arriskurantz
eta jada ez da txantxa
zure erronka denak uzteko
nik banuen esperantza
baina tamalez jarraitu eta
orain biziak balantza.

Helburu gisa beti izan duzu
haustea dagoen marka
azkenekoan mindu egin duzu
zuk familia zeharka
kotxean sartu baino lehenago
esan zenidan: "aparta!"
niri ez ukitu arpa
hau det aukera aparta
badaezpada eman amari
idatzi diodan karta
ez lortzearren hau saihestea
laguna mesedez barka.

Zure alboan gaude guztiok
negar malkotan itota
momentu honetan beste ezertxok
ez digu bat'e inporta
luzatzen doa baita apurtzen
elkartzen gaituen soka
baina toaila ez bota
egin ezazu borroka
dudarik gabe besteen aldean
hau da bizitzako erronka
eta zu maite zaitugun denok
onena dizugu opa.

Mediku jaunak ekarri ditu
berriak alai antzera
ez zara hilko baina ez zara
izango lehen zinen bera
komatik laster esnatu eta
azkar egingoek aurrera
baina arazoa da, zera,
ohitu egin beharko zera
geratzen zaizun bizi luzean
gurpil-aukian ibiltzera
baina lasai nahi dezunetan
alboan izango gera.

Doinua: Maitasuna da
Egilea: Antton Aizpurua



GORRI
“TRAGO BAT BAKARRIK”

Dutxa goxoak lasaitu gabe
hasi da egun berria
sentipenetan gogorrena da
ezin ase egarria
non dut gogoia, non dut izana
itoa daukat irria
edalontziak baldintzatzen du
bizi pozaren neurria
ea koñakak agortzen didan
dardararen iturria.

Betiko barra ondora joan
oraindik ez dut indarrik
penaz jendeak begiratzen nau
baina ez egin negarrik
famili gabe lagunik gabe
ez dut inoren beharrik
niri ez esan “gaixorik zaude”
ez holako kontu zaharrik
bizitza hontan helburu bat dut
beste trago bat bakarrik.

Ume nintzela a zer grazia
aman zerbeza probatzen
gero gaztetan mutil ausarta
eta lehena mozkortzen
poteatzea heldutasuna
harremanetan zabaltzen
orain alkohola lagun bakarra
denetik nau isolatzen
trago bat nahi dut ea ez dudan
bihar ezer gogoratzen.



Gaua heldu da taberna daukat
pena guztien urkabe
diru guztia xahutu arte
koñaka doa suabe
dena ederra bilakatu da
mozkorraldia zutabe
jada alkohola bihurtu baita
nire buruaren jabe
orain momentuz bizirik nago
baina hila edan gabe.

Taberna itxi dena isila
ez da inor laguntzeko
balantza bide malda arazo
ezina etxeratzeko
arropak kendu pixaz zikindu
botaka oheratzeko
baina botila ohe ondoan
heriotza uxatzeko
lehen tragoa bedi arrazoi
gaur hil den hau esnatzeko.

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Egilea: Zigor Agirre

ITZIARREN SEMEA
“TXIN-TXIN, TXIN-TXIN”

Doinua “Habanera”

Pakistango leku baten,
bere izenik ez dakit,
lurrikara bat tarteko
hiri oso bat txikiturik.
Banketxe baten atean
polizi pila geldirik
bertan nahiko diru bazen
erakartzeko lapurrik.
Hurtzaindegia ondoan
umeak irten ezinik
teila ta harri artean
azpian harrapaturik.
Polizi bat bera ere
ez zen mugitu bankutik
diruan txintxin hotsa zen
ume-oihuen gainerik.

Doinua “Ohianeko pagoa blai”

Burura zast! badatorkit
gauza guztien gainerik:
diruak zenbat itsutzen gaitun
hotzikara ematen dit.

Diruak dun balioa
neurtzeko desioa
nola eta nork ematen digu
ume baten prezioa.

Hau izan zen Pakistanen
oso urrun izan arren,
hain ezberdina izango al zen
gertatuko balitz hemen?

Hondamendian itzala,
uherra bezain zabala,
gertautakua ezkuta zezan
harriak haurrak bezala.

Hau ekartzeko argira
kazetariak non dira?
Lezama aldean hogeitik gora
futbolarietara begira.

Kazetarien delitu?
Hala ez daigun ulertu
egunkaria hartzerakoan
"Marca" hautatzen badegu.

Lema degu bizi lasai
eta ahal dela alai.
Ez egin negar umeengatik
ez badegu ikusi nahi.

Doinua "Habanera"

Nola salatu dirua
egun ardatza denean?
Nola kritika daiteke
bera behar dugunean?
Pakistango agintaria
gu izan gintezkenean
errua ez da dirua
errua guk dugunean
jainko bat balitz bezela
egunero mirestean
haren izena erabiliz
dena justifikatzean
drogazaleen antzera
bere beharren menpean
txintxinak pizten baitigu
har txiki bat barrenean.

Egilea: Igor Larrañaga

KETXUS
"BIZIMINA"

Oroimenean zaituztedan eta izango nauzuenei.

Ustekabean bertaratu zen,
zoriontsuen forura,
ixil-ixilik, gorde-gordean
traidore baten modura.
Sustraiak errotik moztu nahian,
gogorra izan zen hura,
nire larrosatxoahartu,
kirastuz bere freskura.

Ospitaleko gela haietan,
bizitza eta herio.
Zunda sartzean niri begira,
biok serio serio.
Zure zainetan hainbat botika
radio eta kimio,
gaixotasun bihotz gabe honek
inori zorrik ez dio.

Intxaurren oskol bat ekaitz gorrian
enbatetikan bestera,
defentsak geroz eta ahulago
ilea be goitik behera.
Ezpainak pitzaduraz josita,
ta bomittuka gainera,
egunean irrifar batekin,
aise konformatzen gera.

Zuen arteko burruka honek,
ez du parekotasunik,
hala ta guztiz ez duzu galdu,
esperantza ta parrerik.
Zapitxo bat buruan jarrita,
piratatxo bihurturik,
Altxor bila bidaia mordo bat
egin ditugu zuk ta nik.

Lorategiko larrosatxo,
ibai ertzeko lamina.
Sudur txikia begi argiak,
azala lehun ta fina.
Amildegiraino horri eusten,
egin degu ahalegina
minbiziak lapurtu ez dezan,
zuk daukazun bizimina.

Zure betirako loari so,
hemen nago zurbil-zurbil,
aldi berean zugandik urrun,
aldi berean hain hurbil.
Hostoak ihartu dizkizute
arnas hustuz umil-umil,
bizitakoaren zoriona,
ezin digute inoiz hil.

Egilea: Jesus Mari Amasorrain

LASTUR
"ERROETATIK"

2.
SARIA

Sorlekuaz pentsatzen
nago neure kasa:
bizipen ta sentipen
askoren mataza.
Amaren magalean:
kantua, jolasa
oroituz hunkitzen naiz,
estutu arnasa,
hain dut beti kuttuna
nik Lasturko plaza.

Zilbor-heste lotura
denok amarena
moztuta ere inoiz
hautsi ezin dena,
beste lotura berriz
sorlekuarena
bizitza osorako
lotzen gaituena,
izana ta izena
ematen diguna.

Presaoia ta Palo
baita ere Tetuan
Marisene hurrena
Arotzene onduan
Martizuritz ere han
plaza inguruan,
sei familik sendi bat
osatzen genuan,
leku hoberik ez zen
guretzat munduan.



San Nikolas eliza
eta bi errota,
eskola ere hantxe
elizaren kontra.
Apaizak sermoi latzak
igandetan bota
infernua gure zain
han omen dago-ta,
beldurrez izututa
joaten ginen lota.

Nortasunez euskaldun
izatez ta hitzez
denok mintzatzen ginen
gu euskara hutsez,
baina gero heziketa
hizkuntza arrotzez
nahiz hizkuntza horietan
guk tutik jakin ez,
eskolan gazteleraz
elizan latinez.

Natura jolasleku
natura ikasgai:
mendi, malkar, basoak,
soro eta zelai,
urtaro bakoitzean
janzten ziren galai,
erraietatik bor-bor
ura doa nonahi,
paradisu horretan
bizi ginen lasai.





Iraila iristean
herriko jaietan
giro jatorrik bada
jatorra benetan:
bertso, kirol, zezenak,
erromerietan,
galdu nahi bazenuke
amets ezietan,
joan zaitez Lasturra
San Nikolasetan!

Sorlekutik urruti
denbora egina
erroak botatzea
egin zait ezina,
Lasturrekin beti dut
nik harreman fina
sinadura gabeko
loturaren zina,
hantxe arintzen baitut
bizitzaren mina.

Doinua: la jarri gaituzte
Egilea: Karlos Larrañaga



MUSIKA
"NOTIZIEN INGURUAN"

Hiru urtera ekonomia
ez da egongo hain larri
arnasa hartu, ezin da eta
zerga gehiago ezarri
pantailetak buruei baietz
esaten diegu sarri
baina benetan gertatzen dena
ezingo degu igarri
itsu-itsuan sinistu gabe
galdera ikurrak jarri.

Gezurrez, egiz, ixiltasunez
osatzen da galeria
bakoitza bere bidetik doa
hori da hain nabaria
honek hau dio, besteak hori
hau da hau erokeria!
Nahasmen hontan ez dut sinisten
esaten duten erdia
azken finean, interesetan
oinarritzen da egia.

Informazio eza badago
errazagoa kontrola
zelai berdea bilakatu da
albistegien kaiola
gaur egunean besterik ez da
futbola eta futbola
atzo gaueko partidu hartan
zeinek sartu zuen gola?
Baina ondoan zer gertatzen den,
horrek ez dio axola.

Ezertxo ere ez du azaldu
nahiz bi orduan aritu
nahiago nuke hizketarako
dohai horiek banitu
gidoietako trama beltzenak
ezingo dira argitu
asmatutako ipuin haietan
ene zenbat zirrikitu
Hollywoodeko filme guztiak
orainak gainditzen ditu.

Bizitza hontan beti egon da
bat bestearen mirabe
ohartu gabe ipuinak dira
geure buruaren jabe
ezingo degu aurrera egin
zentzurik ibili gabe
horretarako goiko ganbara
martxan jartzea da klabe
pantaila huts bat ez dadin izan
gure ideien aldare.

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

Egilea: Josune Arakistain

POP BEGI URDIN
“ESTRAPERLUAN”



Gure etxean normala genun
zortzi umeren negarra.
Ez zen erraza engainatzea
anai gazte haien arra.
Ikasketetan nahiz eta nintzen
argia bezain azkarra,
Leziotxo bat emanez dator
nerena aitona zaharra:
*“bi irakasle onak dituzu
gosea eta beharra”.*

Eguzkia behin barrura sartu
ilunan disimuluan.
Mokau txiki bat eramaten nun
txorixo puntta taluan.
Gure eguna ordun hasten zen
beste askoren moduan.
Urte askotan ikusi nitun
hamaika gizon alu han!
Oso gazterik hasi nintzen ni
gauero estraperluan.

Itsasontzia ilargiak
zeturten kosta ondora.
Guk lehorretik elkar josita
tablak bota itsasora.
Zaku astunak bizkarka hustu
itsasontzitik basora.
Izerditan blai joaten ginen
mendi malkar baten gora
Gure aurkari izaten ziren
iluna eta denbora.



Artilezko bi galtzerdi lodi
eta abarketa finez.
Belaun buruak urraturik ta
galtza barrena buztinez.
Karga astunak soinean hartuz
han joaten ginen oinez.
Gorputz guztiko molestiekin
hanka azpitako minez.
Nahiz hasitako lan hori nola
bukatuko zen jakin ez.

Gure etxera dirua ez zen
etorriko bere kasa.
Arriskuekin gauero jolas
nahiz eta ez zen jolasa.
Kinka larrian egin nituen
astean zazpi gaupasa.
Sarritan behar baino gehiago
estutzen nuen arnasa.
Ondorengoak nik pasatako
trantzerik ez zezan pasa.

Doinua: Mutil koxkor bat

Egilea: Ander Zulaika



SASI BERTSOLARIA

Ume nintzela esan zenidan
sobran nuela denbora
bertsotan hasi nintekeela
hori zela eta moda
gainera, seme, horretarako
zuk badaukazu ganora
beraz egin nuen proba
jarraitu nuen gustora
ta maila zihoan gora
horregatik nik eskertzen dizut
gomendioa gerora
hau dela eta gure harremana
estuagoa izango da.

Nahiz hamar urte pasa zaizkidan
aita niri berehala
jakin ezazu oraindik ere
bertsoa maite dudala
kantuan ere jarraitzen dut nik
ta ez naiz horren makala
bertsoa eginahala
senak esaten dit hala
nahiz ta atera argala
bakardadean nagoenean
bera dela nire itzala
eta nik gura dudan artean
horrela izango dala.

Bertsolaritzak zabaldu dizkit
nik behar adina ate
lagun min bat dut bertsolaria
ta ez da kasualitate
nahiz eta oraindik nik ez dudan
berak beste kalitate
asko irakatsi didate
mila doinu barietate
ta hainbeste mentalitate
nahiz orain arte ez berak ez nik
ez degun jadetsi bat'e
Debako bertso sariketa hau
irabazi genezake.

Oholtza gainera igo nadin ni
jada ordua da antza
gogoia daukat estreinatzeko
nahia egiteko dantza
hasieran ez eduki arren
ondo egiteko esperantza
zuzen egingo naiz altxa
joan mikrofonorantza
ta nahiz okertu balantza
beste saio batean kendu
ahal izango det arantza
bertsoa beti izango det lagun
ez det egiten zalantza.

Doinua: Zuek horrela ikusi eta
Egilea: Antton Aizpurua

ZAZPI
"ISPILUARI"

Lau horma arte honetan
hormarik ez da aurkitzen
soilikan mila sentipen
perez pare gu bakarrik
ez dugu inoren beharrik
gozamenaren zirrarak
eta bion begiradak
elkartzen diren unean
isilpeko solasean
solasa dugu besterik.

Ile nahasi azpian
babesten zara lotsati
begira islada bati
onarpenaren zalantza
gustukoa ez da antza
baina oraindik begira
ispiluaren erdira
nahiz eta sarri biluzi
sentitu zaren itsusi
polita zara laztana.

Nora ezean galdurik
aurkitzen zaren gauetan
triste zauden zenbaitetan
pozaren zorabioak
amets ta ilusioak
algara eta negarra
maitasunaren beharra
zu zara nire islada
nahiz gutxitan beharbada
sentitu zure ispilu.

Zer maitatu behar dugun
erakutsi digutenez
ispilu parean nekez
jartzen gara oraindik
eta ez dugu inondik
gure burua maitatzen
garen bezala onartzen
izan gaitezen garena
eta nahi genukeena
ispilu parean beti.

Doinua: Bakardadeak
Egilea: Irati Baroja



ZELAITXO

Hizketan ongi hasi orduko
errekaduen ardura.
Txakur handi bat badago han ta
beldur pixkat eta duda.
Hala ere, Joxeri eraman
pardela zuzen eskura,
beheko sororaino jaitsi behar
sardea eta aitzurra,
egunian bi aldiz ekarri
metal iturritik ura.

3.
SARIA

Jaunartzea ere ospa nezan
beharrezko nu(e)n eskola,
sei urterekin lau kilometro
egin behar hala nola.
Etxian beti euskaraz eta
han berriz zan española.
Maixu batek erakutsi zigun
tente jarri eta hola:
hasieran “padre nuestro” eta
ondoren “cara al sol”-a.

Hamasei urte bete orduko
ofiziora aguro.
Hasieratan pasatzen ziren
makinatxo bat apuro.
Tailer guztia garbitu behar
baita hainbat komun zulo.
Ofiziala beti agintzen
erreez bi-hiru puro.
Asteko jornala izaten zan
berrogeita hamar duro.

Sindikatu ta langileria
hasi zan gogor bultzaka
eginaz manifestazioak
pintada eta pankarta.
Langilearen eskubideak
lortuz banaka-banaka.
Aurrera jarraitu beharrean,
atzera! Hauxe da marka!
Banan-banan lortutako haiek
galdu dira hamarnaka.

Nere eskuek ematen dute
bi armiarmatzar gaizto;
besoetan hiru ebakuntza
ta halere ditut "xixko",
bizkar aldean ere hor daude
pare bat "hernia disko",
entzumena erdira jaitsita
ezin egon listo-listo.
Hirurogeita zazpita arte
lana? Baina nola kristo?

Norbaitek igual pentsa dezake:
"Horrek bota dik freskura!
Disimulatu nahian zebilek
bere gizajo itxura".
Inork sinisten ez badit ere
ez dit batere ardura.
Informe eta plaka guztiak
hementxe dauzkat eskura.
Baina dan-dana egia dela
"como hay dios; la verdad pura".

Umetatik hasita lanean
kasik denbora gehiena,
aspaldi xamar pasia zaigu
guri sasoirik onena.
Eta jubilatzeko garaian,
daukagu orain problema;
politikoeak egiten dute
beti komeni zaiena.
Bizi guzti-guztirako lana
eman digute kondena.

Doinua: Esperantzarik gabeko zenbait
Egilea: Luis M. Agirrezabala

